

Espainiako Auzitegi Nazionalak 26 urteko espetxe-zigorra ezarriko dio Ainhoa Garcia Monterori

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 28/10/2024

Ainhoa 2003ko maiatzetik dago preso eta Espainiako zein Frantziako Estatuan zigortu dute.

Espainiako Auzitegi Nazionalak gaur hasi da Ainhoa Garcia Montero epaitzen, 2000ko abuztuaren 8an Adegiko presidentea zena exekutatzea egotzita. Fiskaltzak 30 urte eta sei hilabeteko eskaera egina zuen akusatuarentzat, baina akordio bat tarteko, hura lau urte murriztea adostu du. Beraz, auzipetuak hilketa terrorista delituagatik 25 urteko kartzela zigorra jasoko du, eta urtebete eta bederatzita hilabetekoa dokumentuak faltsutzeagatik. Halaber, 2.700 euroko isun bat ere jasoko du.

Ekintza beragatik, beste bi ETako militante, Ibon Etxezarreta eta Patxi Xabier Makazaga, zigortu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, 25 eta 27 urteko kartzela zigorra ezarrita, hurrenez hurren.

Ainhoa Garcia Montero 2003ko maiatzean atxilotu zuten Saintesen (Frantziako Estatua), eta 22 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten armak eta lehergaiak eskuratzeagatik. Hala ere, Espainiako zein Frantziako Estatuan zigortu dute.

<https://eh.lahaine.org/espainiako-auzitegi-nazionalak-26-urteko>